

Egunerokoa

Ama oraindik marmarrean ari zait ordenagailuaren kontuarekin. Ez da konturatzen udako kuadrila osoarekin harremanetan jarraitzeko modu bakarra dela.

Bera telefonoz komunikatzen da lagunekin, nik berriz Tuenti eta Messengerra erabiltzen ditut horretarako. Gauza bera da, garrantzitsuena da berak eta nik harremanerako gai izatea, moduak berdinak ez izan arren.

Denak hiri ezberdinetan bizi gara, urtean behin baino ez dugu elkar ikusten eta niretzat egunerokotasuna beraiekin partekatzeko modu soil bat da.

Egiten duguna kontatzen diogu elkarriz, argazkiak igo eta elkar ikusten dugu. Argazkien bidez bere lagunak ezagutzeko aukera dut. Bestalde, batzutan elkarrekin jolasten dugu.

Kontu handiz ibiltzen naiz; ezezagunak eranstekotan, horiek nire lagunetikiko pertsona oso hurbilak izaten dira.


Eta errematatzeko, amak igandeko egunkarian irakurri zuen webcam eta Tuenti orrialdeen inguruan egiten den erabileraren berri, horregatik arrisku horiek guztiak burutik kendu ezinik dabil.

Egia da kanpaina bat garatzen ari dela aspaldi honetan, "argitaratu aurretik ongi pentsatzea" zein garrantzitsua den azpimarratzen duena. Internetera zerbait igotzeko orduan arretaz jokatzeko eskatzen digu, bertan jendarteratzen den neurrian edonork erabili ahal duelako.

Ane eta Uxuekin horretaz hitz egin nuen. Duela hilabete batzuk Institutuan liburua lapurtu ziotelako ero baten moduan oihuka zebilen mutil bati grabatu zioten eta gero grabazioa Internetera igo zuten. Egun gutxi barru ezabatua izan arren, oraindik hainbat tokitan azaltzen da, nahi duen orok deskargatzeko aukera izanik.

Gehiegizkoa izan zen eta horren ondorioz gogor hartu zuten gurekin Instian... Hala ere, bada oraindik berarekin gurutzatzean iseka egiten dionik, etsita oihuka dabilenaren aurpegiarekin. Oso gaizki pasatzen ari da.

Azkenean Ama konbentzitu beharko dut Facebook orrialdean kontua ireki dezan, zertan datzan eta zertarako balio duen ohartu dadin.





GIZARTE SAREAK Facebook, Tuenti...beste aurpegia

Azken urteotan, gizarte sareak erabat hurbilekoak bihurtu zaizkigu. Horien inguruan hitz egiten da prentsan, ahaideen zein lagunen artean. Facebook, Tuenti edo MySpace atarrietako logoak etengabe azaltzen zaizkigu bisitatu ohi ditugun web orrialde guztietan.

Gaur egun gizarte sareak, eta neurri txikiagoan jokalarri anitzeko plataformajokoak, nerabeen arteko Interneteko harremanerako modu ezagunenak dira.

Wikipedia orrialdean (es.wikipedia.org) irakurri ahal dugunez, gizarte sareak pertsonekin eratutako gizarte egiturak dira, horien arteko harreman mota anitza izateko aukera dakartena, esaterako adiskidetasuna, ahaideetasuna, interes komunak edota ezagutzak partekatzea.

6 eta 10 urte bitarteko neska-mutilen % 60 Interneten sartzen dela, nerabetasunean portzentajeak nabarmenki gora egin duela, egunez egun telefono mugikorren horretarako erabilera gero eta komunagoa dela kontuan hartzen badugu, garrantzitsua

da gizarte saretan mugitzeak inplikatzeko dituen abantailak eta arriskuak ezagutzeko.

Gizarte saretako erabiltzailea izateko adin txikiena 14 urtekoa bada ere, azkenean adingabe ugari irekitzen du kontua, zailtasun handirik gabe. Hamalau urte dituztela esatea nahikoa da sarbidea lortu ahal izateko.

Jarraian deskribatzen diren arriskuak, nerabeen segurtasuna eragiten dutenak, askoz handiagoak dira 14 urtetik beherako kasuan.

1. Arinegi erasten dira kontaktu ezezagunak.

Gizarte sareen bidez, elkar ezagutzen ez duten pertsonak elkar ezagutzen dutenen bidez harremanetan jarri izaten dira. Alditan egoera haratago doa ordea, horrela, ezagutzen ez diren pertsona horien kontaktuak erantsi izaten dira. Harremanak zabaltea positiboa da, baina sistema horrek nolabait kontrolatu ezinezko harreman-sarera garamatza.

2. Funtzio automatizatuak ugariegiak izanik, batzutan ez gara ohartzen link

batean klik egiteak ekarri ahal dituen ondorioen garrantziaz.

Gizarte sareen helburua ahalik eta hedadura handiena lortzea da. Adibidez, Gizarte Sare batera sartzeko unean besterik gabe galdetzen zaizu Hotmail, Gmail kontuetako helbide-liburuen edota beste edonolako zerbitzuren baten bidez zure lagunen bilaketa egiten laguntzerik nahi al duzun ala ez. Horrela lortzen da maila orotako kontaktuengana gonbidapen ugari helaraztea, ahaide zuzenengana zein pertsona erabat ezezagunengana.

3. Funtzio nahiko ezezagunak dituzte, erakargarriak baina neurtu ezinezko ondorioak dakartzatenak.

Partekatzeo aukerak anitzak dira, horien ondorioak zeintzuk diren ez jakin arren. Esaterako, Gizarte Sareko joko batean jolasteko orduan, zure datuak eta zure lagunenak eskuragarri izatea eskatzen zaizu. Baiezkoa ematean, zure informazioa zuk uste baino askoz haratago iritsi ahal da. Gauza bera gertatzen da zure izena daraman argazkia ezartzen dutenean.

Zure pribatutasun mailaren arabera, edonork ikusi ahal izango ditu zure argazkia, zure aurpegia eta zure izena.

Gainera, zure pribatutasuna zure esku badago ere, ezinezkoa da zure lagunak hura nola kontrolatzen duten jakitea eta horren mendean zaude.

4. Argitaratuaren hedapena oso azkarra eta bizia izaten da.

Seme-alabek, orohar, sarean argitaratzen denaren inguruko ikuspegi distorsionatua izaten dute. Adibidez, web orrialde batean argazki iraingarri bat argitaratu ahal da, hura oharkabean pasatuz, baina gizarte sarean argitaratzen bada, ondorioak berehalakoak izaten dira. Ingurune hurbila, ahaideak zein lagunak, horren jabe egiten baitira.

5. Baliabideak oso ahaltuak eta eraginkorrak dira, datu gehiegi bildu izaten dira.

Sarean sartzean, erregistro horren bidez jasotzen ditu nire informazio pertsonalaz (profila) gain, nire harremanak, nire interesak, nondik zehar nabigatzen dudun, bisitatzen ditudan orrialdeak, zenbat denbora ematen dudun konektatuta, zein ordutan, no-rekin izaten dudun harremana, etab.

6. Kontuen pribatutasuna konfiguratzeko eragozten dute.

Sareak hedatuz doazen neurrian horien onurak ere handiagoak dira, hedapena ahalik eta urrunen iristea lortzean. Ondorioz, kontuaren pribatutasuna konfiguratu ahal izatea eragozten da. Kontu bat irekitzen duzunean, informazio ugari eskatzen zaizu eta gero, behar bezalako babes-neurriak erabili ez badituzu, ia edonork hura ikusteko aukera izango du. Hainbat gizarte saretan, besterik adierazi ezean, pribatutasun osoarekin eginiko adingabeen (14-18 urte) kontuak konfiguratu izaten omen dira.

Zergatik kezkatzen gara horrenbeste bizitza errealean gure seme-alaben segurtasunaz, eta aldiz bizitza errealean "beste aurpegi" horretan, arriskuen edo gure seme-alaben Interneteko erabileraren berri ez izateagatik, apenas egiten dugun ezer?

Seme-alaben ordenagailuaren erabilera denbora mugatu ohi dugu, baina ez gara jabetzen bost minutuko erabilera egun oso batekoa baino askoz arriskutsuagoa gertatu daitekeela.

Aurreko zenbakian (25. Semealabak. Gure seme-alaben mundu birtuala), udaleko web orrialdean aurkitu ahal da (www.getxo.net), hainbat aholku eman ziren gurasoentzat, gizarte sarean ezaugarriak kontuan hartuta, horiek gogoan hartzeko eta aplikatzeko beharra erabatekoa zelakoan.

Gogoan hartu gure oinarriko zeregina seme-alabak bere pribatutasuna zein lagunena babestearren garrantziaz jabetuaraztea dela, gizarte sareak bezalako ingurunetan, anonimatuak urrun, norbere izena, abizenak eta batzutan argazkia ere jendarteratzen direlako.

Ikararen botoia

Duela gutxi, Erresuma Batuan hitzarmena adostu dute Facebook eta beste gizarte sareen batean ikararen botoia eransteko (oraindik ez da inplementatu gainerako herrialdetan).

Arriskuan edo mehatxupean aurkitzen diren adingabeek sakatu ahal dute, horrela, eskumeneko agintariak jakinarenean gauean daude, ikerketari ekiteko eta lanean hasteko.

Alde batetik, agian ez litzateke nahikoa izango, zeren adingabeak erabili nahi dituzten pertsonak oso zuhurrak izaten dira, baina bestetik, adingabeen arreta hedatuko da, arriskuen ezaugarriak kontuan hartzen ikasteko kontzientziatuz.

Gizarte sare erabilienak



www.tuenti.com

Tuenti biztanleria gaztearengana zuzendutako gizarte sare birtuala da. Erabiltzaileak bere profil propioa eratzea, argazkiak eta bideoak igotzea eta lagunekin harremanetan jartzea ahalbidetzen duena. Aukera anitzagoak ere eskaintzen ditu, esaterako ebentoak, Tuenti Tokiak eta Tuenti Orrialdeak sortzea, lagunaren argazkitan etiketak jar-

tzea, horien egoeraren berri ematea, norbere gune pertsonala sortzea, norbere txataren bidez txateatzea eta Tuenti Jokoetan, gizarte sareko jokotan, jolastea. Duela gutxi erantsi da Bideo Txataren funtzionaltasuna, gizarte sareko txataren bidez lagunekin txateatzeko aukera izateko.



www.myspace.com

Myspace erabiltzaileen profil pertsonalekin eratutako gizarte interakziarako web tokia da. Barne hartzen ditu lagunaren sareak, taldeak, blogak, argazkiak, bideoak eta musika, erabiltzaileen artean komunikatzea ahalbidetuko duen mezularitzako barne-sareaz eta barne bilatzaileaz gainera.



www.facebook.com

Facebook posta elektronikoen kontua erabilgarri duen edonorentzat eskuragarri dagoen gizarte sareko doaiko web tokia da. Erabiltzaileak gizarte sare batetan ala gehiagotan mintzatu dira, euren egoera akademikoa, lantokia edota eskualde geografikoa kontuan hartuta.

Eskaintzen dituen zerbitzuak:

- **Lagunen zerrenda:** bertan erabiltzaileak ezagutzen duen eta erregistratuta dagoen edonor erantsi ahal du, betiere bere gonbidapena onartua izaten denean. Facebook atarian lagunak bilatzeko eta gonbidatzeko baliabideak erabiltzen dira.
- **Taldeak eta Orrialdeak:** duela gutxi sortutako garapen handieneko erabileretako bat da. Interes komunak dituzten pertsonak biltzen dira. Talde horietan argazkiak, bideoak, mezuak, etab. erantsi ahal dira.
- **"Muro":** erabiltzaile profil bakoitzeko gune bat da zeinetan lagunak mezuak idatzi ahal izango dituzten, erabiltzaileak ikusi ditzan. Erabiltzaile erregistratuentzat soilik dago ikusgarri.
- **Argazkiak.**

- **Opariak:** opariak edo gift izendatuak, mezua daramaten ikono txikiak dira.
- **Aplikazioak:** aplikazio txikiak dira, zure zorioneko galleta aurkitzeko, zure lagun onena identifikatzeko, zure nortasunaren inguruko ezagutza ezagutzeko...
- **Jokoak:** Facebook atariko aplikazio rol jokoen ingurukoak dira, Trivial Pursuit (ad. geografia) edota trebetasun proben antzeko jokoak. Ospetsuenen artean aurkitzen da FarmVille.



www.twitter.com

Twitter bere erabiltzaileen artean gehienez 140 karaktereko testu mikro-sarrerak elkarraldatzea ahalbidetzen duen microblogging web tokia da. Mezu horien igorpena Twitter web tokiaren bidez, telefono mugikorreko SMS bidez edota bat-bateko mezularitza programen bidez egin ahal da, baita hirugarrenen edonolako aplikazioen bidez ere, esaterako Facebook, Xbox, Nokia, Tuenti, etab.

Eguneratze horiek erabiltzaileen profil orrian azaltzen dira eta bat-batean helarazten dira bere horretan horiek jasotzeko agindua eman duten beste erabiltzaile batzuegana. Erabiltzaile horien kasuan, mezuen igor-


pena murriztu egin ahal da, bere lagun taldearengana mugatuz, besterik agindu ezean erabiltzaile ororentzat eskuragarria izango baita.

Erabiltzaileek eguneratzeak jaso ahal dituzte Twitter orrialdetik, bat-bateko mezularitza, SMStik, RSStik eta posta elektronikoetatik izanik.

Gizarte saretako hainbat datu erabilgarri


Nerabeen gizarte saretako aplikazioen erabilera

- Sarean jolastea
- Informatzea
- Berriketan jardun
- Nire profila eguneratu
- Mezu pribatuak bidaltzea
- Nire lagunaren argazkiez mintzatu
- Argazkiak partekatzea edo igotzea



Gizarte sareak erabiltzeko bere arrazoiak

- Lagunekin harremana mantentzea
- Gutxi ikusten dituzunen berri izatea
- Modan daude
- Dibertigarria da
- Nire lagun guztiak daude
- Jende berria ezagutzeko



Sexuen araberako Interneten erabilera

- Emakumezkoa
- Gizonezkoa



Gizarte sareen erabilera hedatu egin ohi da Bigarren Hezkuntzan, neskengan gehiago mutikengan baino. Portzentajeen arabera, % 76 neskak dira eta % 60 mutilak. Norbere pribatasuna babesteari dagokionez, % 73,84ak babes-neurriren bat hartzen du. Gainerakoek (% 26,16) ez dute ezer egiten.

Irakurriz ikastea ...


“Internet con los menores riesgos”

Aftab Parry. Argitaletxea: Edex.

Aftab, Parry. “Internet con los menores riesgos” (“Internet arrisku txikienekin”) Edex Gida honetan Interneteko eta beste hainbat komunikazio sistemetak (telefono mugikorrak, azken belaunaldiko bideo-kontsolak...) arriskuak aztertzen dira. Helburua da gurasoak eta hezitzaile ezberdinak jakinaren gainean jartzea balizko arriskuen (eduki kaltegarrien eskuragarritasuna, pertsona arrotzekin harremanetan jartzea, iruzurrak, pribatasun eza, ciberbullying...) eta babes-

neurriak ezartzeko behararen inguruan. Hizkuntza sinplea eta ikuspegi oso praktikoa direla medio, helduek teknologia berriak segurtasunez eta egokitasunez erabili ditzaten lagungarria da. Horretarako metodologia erraza proposatzen da, hiru urratsetan oinarrituak:

- Arriskuak ezagutzeko eta ebaluatzea.
- Prebentzio neurriak hautatzea.
- Zure erabakiak praktikan jartzea.



www.CuidaTuImagenOnline.com

¡Piensa antes de publicar!

¿Crees que sabes mucho sobre la **PRIVACIDAD** y los **DATOS PERSONALES**?

¿Eres una persona experta en **REDES SOCIALES**?

¿Sabes manejar tu **IMAGEN** en la Red?

¿Conoces los secretos del **SEXTING**?

¿Crees que la **WEBCAM** no te puede jugar una mala pasada?

Compruébalo jugando al **PRIVIAL**, el trivial de la Privacidad

Disfruta de estas **AVENTURAS ANIMADAS**

O consulta esta sección de **REFERENCIAS** que te ayudará

+ info

Pantalla completa

cuida tu **IMAGEN** on line

www.cuidatuimagenonline.com

Jolastu PRIVIAL-era, pribatutasunaren trivial jokora

Haurren eta nerabeen Internet eta telefono mugikorren erabilerarekin loturiko alderdiak aztertzeko online hezkuntza baliabidea da, irudia eta pribatutasuna babestearen aldekoa.

Helburua 11 eta 15 urte bitarteko adingabeak jolas-jarduerekin bidez sentsibilizatzea eta heztea da, pribatutasuna eta Interneten era-

bilera seguruaren inguruko guztia kontuan hartuta, horretarako online hezkuntza baliabidea bultzatuz.

Aztertzen diren gaiak:

- Datu pertsonalen erabilera.
- Gizarte Sareak.
- Irudiaren erabilerarekiko arreta.
- Sexting.
- Webcamaren erabilera.

Bere egituraren

baitan aurkitzen dugu:

- 5 gai-eremu hartzen dituen 75 galderako jokoa.
- Bost animazio dibertigarri.
- Erreferentzia interesgarrien hautaketa.



KIDDIA.org

Neska-mutilen gozamenerako tokia. Interesatzen zaiena, dibertitzen eta liluratzen dituen aurkitu ahal izateko. Jokoen gela, ezkutalekua, parkea, tailerra...bihurtu ahal den tokia. Haurren irudimenean aurkitu ahal dugun guztia onartuz. Baita interneten eskaintzen zaien guztia ere, Sarea lasaitasunez, konfiantzaz eta segurtasunez erabiltzen ikasi dezaten.

Getxoko Gurasoen Eskola



Getxo
bizi ezazu



- Ikastaroen iraupena hiru, lau ala bost saiokoa izango da.
- Adierazitako data lehenengo saioari dagokio.
- Eguna eta ordutegia berdinak izango dira, ikastaro ari dagozkion astetan zehar.
- Ez da beharrezkoa izango aurretiko izen-ematea gauzatzea. Nahikoa izango da adierazitako ikastetxera etortzea, lehenengo egunean.
- Edonolako arrazoi dela-eta lehenengo egunean etorri ezin izango bazinete, ondorengo saiotara etorri ahal izango zinatekete.
- Zure seme-alabak Ikastetxe horretakoak ez badira, eta hura ezagutzen ez baduzu, atezaindegira ala A.M.P.A.-ra joan ahal izango zara, saioak non ospatuko direnaren berri eman diezazuten.
- Fadura BHI-k eta Julio C. Baroja BHI-k ikastetxetarako batera eskainiko diren jarduerak, Fadura BHI ikastetxean gauzatuko dira.
- Jarduerak doakoak izango dira.
- Lehenengo egunean gutxienez hamabi (12) pertsona etortzen ez badira, bigarren aukera bat bilatuko da, eta horren ondoren, partaideen gutxieneko kopurua lortzen ez bada, ikastaroa atzeratu egingo da. Gunearen barne dituzuen aukeren berri emango zaizue. Garrantzitsua izango da lehenengo egunean etortzea.
- Informazio gehiago eskuratzeko, 944 660 151 telefonora deitu.

IKASTAROEN EGUTEGIA: URTARRILA - MAIATZA 2011

	IKASTETXEA	GAIA	HASTEKO EGUNA	ORDUA
Urtarrila	Trinitarias	Familiako mugak eta arauak	Urtarrilak, 17 astelehena	18:00
	Geroa IP	Sexualitateari buruz hitz egiten	Urtarrilak, 18 asteartea	9:00
	Zubilletas	Familiaren barnean gertatutako gatazka konpontzea	Urtarrilak, 18 asteartea	14:30
	S. Ignacio IP	Adimen emozionala	Urtarrilak, 21 ostirala	14:30
Otsaila	Fadura BHI Julio C. baroja BHI*	Autoestimua hobetzen	Otsailak, 22 asteartea	19:00
	Larrañazubi	Sariak eta zigorrak	Otsailak, 24 osteguna	9:00
Martxoa	Aixerrota BHI	Nerabetasunarekin nola bizi	Martxoak, 21 astelehena	19:00
	Artaza BHI	Autoestimua hobetetzen	Martxoak, 22 asteartea	19:00
	Divina Pastora	Adimen emozionala	Martxoak, 23 asteazkena	15:00
Maiatza	Europa	Autoestimua hobetetzen	Maiatzak, 9 astelehena	18:00
	Azkorri	Familian harremanak hobetzea	Maiatzak, 11 asteazkena	19:00
	Romo IP	Autoestimua hobetezen	Maiatzak, 12 osteguna	9:00

*Ikastaro hau IES Faturan ospatuko da

Informazio gehiago nahi baduzu, telefono zenbaki honetara dei dezakezu.

94 466 01 51